

# HEZURRAREN NEURKETA ERRADIOLOGIKOA OSTEOPOROSIAREN EBALUAZIOAN

Arana E., Gutiérrez I., Asua J.

## HEZURRAREN NEURKETA ERRADIOLOGIKOA OSTEOPOROSIAREN EBALUAZIOAN

E. ARANA-ARRI\*

I. GUTIÉRREZ-IBARLUZEA\*\*

J. ASUA-BATARRITA\*\*

\*Bidezabal Osasun Zentroa, Getxo-Bizkaia

\*\*Osteba, Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 944308592

Posta Elektronikoa: [eunatea@euskalnet.net](mailto:eunatea@euskalnet.net)

Osteoporosia hezur-masa baxua eta hezur-ehunaren mikroarkitekturaren narriaduraz bereizten den gaixotasuna da. Espainian 2-3 milioi pertsonak osteoporosia pairatzen dute. Beraien adierazpen kliniko nagusiak haustura urrakorrak dira, bai ornoetan, bai aldakan eta bai erradio distalean ere. Haustura urrakorrenzako hezur-dentsitate mineral baxua da arrisku-faktore nagusia.

1994. urtean, Osasunaren Mundu Erakundeak osteoporosia honela definitu zuen: nolabait, hezur-dentsitate mineralean (HDM) oinarrituta 2,5 behe-desbideraketa estandar pertsona gazte baten gailurrekin konparatuz. Osteoporosiaren diagnostiko goiztiarra oso garrantzitsua da, tratamendua garaiz jarriz gero, osteoporosiaren hausturen morbiditatea eta hilkortasuna murrizten direlako.

Hezuraren indarra neurtzeko hiru irudi-eredu nagusi erabiltzen dira: x-izpien energia dualeko absortziometria, ordenagailu bidezko tomografia kuantitatiboa, eta kalkaneoko ultrasonografia. Lehenengo bi ereduak hezur-dentsitate minerala neur dezakete, bai orno lunbarretan eta baita alde periferikoetan ere. Ikerketa batzuen arabera kalkaneoko ultrasonografiak hezuraren arkitektura eta dentsitatea neur ditzake. Beste teknikekin konparatuta, ultrasonografia ezin da erabili, denboran zehar eskeletoaren aldaketak monitorizatzeko ezta tratamenduarekiko erantzuna neurtzeko ere; dena dela, ez du inolako kalterik sortzen.

Egun ez dago ebidentziarik osteoporosiaren tratamenduaren algoritmo baliagarri bat eraikitzeko, beraz ikerketa prospektibo gehiago behar dira, non haustura baten arrisku-faktoreak gehi HDMaren neurketa sartzen diren.